


Rocio Peña Azpilicueta eta Mario Sangalli Uggeri (Peña Ganchegui y asociados)

Rocio Peña Azpilicueta eta Mario Sangalli Uggeri, Luis Peña Gancheguiarekin batera Donostiako "Peña Ganchegui y asociados" arkitektura-estudioaren sortze-kideak dira, gaur egun estudioaren zuzendariak direlarik. Biek Bartzelonako Arkitektura Eskolan ikasi zuten, eta egun Mario Donostiako Arkitektura Eskolan proiektu-irakaslea da; Luis Peña maisua zendu ondoren, estudioak garai berri bati egin zion aurre, Donostiako Arkitektura Eskolaren sortzailearen ildo beretik. Oso aipagarriak dira Cementos Rezolako museoa, Bilboko Abandoibarrean 85 etxebizitzaren proiektua, Pasai Donibaneko Santio Plaza edota Andoaingo Bastero Kulturgunea. Hain zuzen ere, proiektu horren sorreraren krokisak ditugu artikulu honetan ikusgai.

Lana: Bastero Kulturgunea.
Sustatzailea: Andoaingo Udala.

Egileak: Luis Peña Ganchegui, Rocío Peña, Mario Sangalli.

Data: lehiaketa 1996, proiektua 1998, obra 2003.






Miguel Gutiérrez García (Cooperactiva Arquitectura)

Arkitektura-estudio bilbotar hau 2004. urtean sortu zuten Miguel Gutiérrez García, Patxi Corcuera Bilbaok eta Ramiro Higuera Higuera, eta beraiek dira estudioaren zuzendariak. Hiru arkitektoek Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoan ikasi zuten. Etxebizitza publikoan lan eskerga egindako estudioa da, batez ere Eusko Jaurlaritzako Visesa sozietaterako. Aipagarriak dira Ruben de Miguelekin batera, Bilbon egindako Errekalde auzoko 70 etxebizitza taldea, bai eta Bilboko San Anton aldeko 85 etxebizitza (Visesa Saria lortu zuen proiektua), bai eta ondoko irudian agertzen zaigun Gasteizeko Zabalgana auzoko 84 etxebizitzatarako proiektua.





Lana: 84 BOE etxebizitza eta eranskin Zabalganan, Gasteiz.
 Sustatzailea: Visesa, Euskadiko Etxebizitza eta Lurzorua.
 Egileak: Ramiro Higuera, Patxi Corcuera eta Miguel Gutiérrez
 (Cooperactiva Arquitectura).
 Data: 2011/2013.



Maite Apezteguía Elso (Apezteguia Architects)

1979an Nafarroako Arkitektura Goi Eskola Teknikoan arkitekto hirigilearen titulua jaso zuen, eta eskola berean doktoretzako kurtsoak egin zituen 1981 eta 1982 urteen bitartean. 1986tik aurrera eskola berean irakasle-lanak burutu ditu. 2010. urtean Apezteguia Architects estudioa sortu zuen. Haren lanen artean, nabarmengarriak dira Gipuzkoako Industria, Nabigazio eta Merkataritza Ganbera eta, Nafarroan, Donamariako Jauregia Dorrearen zaharberritzea, zeinak EHAEO Sarien lehenengo postua jaso baitzuen zaharberritze-atalean 2003. urtean.

Lana: Gipuzkoako Komertzio eta Nabigazio-Bazkunderako egoitza
Sustatzailea: Gipuzkoako Komertzio eta Nabigazio-Bazkunderako
Egileak: Maite Apezteguía Elso
Kolaboratzaileak: Silvia Saldaña Vela, Begoña García Gordo,
Juan Carlos Linares Fernández, Iván Fernández Prados, Yoana
Urralburu Soto
Data: 2006






Jabier Puldain Huarte

Jabier Puldain Huartek Madrilgo ETSAM eskolan ikasi zuen, eta Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoko proiektu-irakaslea eta doktorea da, ikerkuntza eta praktika profesionalarekin osatuz bere jarduna. Haren obren artean hauek nabarmendu daitezke: Jose Ignacio Linazasororekin batera egindako Madrilgo UNEDeko liburutegia, Lekeitioko Barandiaran Kultura Aretoa eta Markinako Uhagon Kulturgunea.


Lana: Familia bakarreko etxea, Amara-Gaina Donostian.
 Sustatzailea: Pribatuak.
 Egileak: Jabier Puldain Huarte.
 Kolaboratzaileak: Iñigo Garcia Odiaga, ikaslea.
 Ainhoa Erauskin Tolosa, ikaslea.
 Data: 2003.



César Azcárate Gómez (ACXT)

Bilbon jaioa, 1991tik Nafarroako Arkitektura Goi Eskola Teknikoko arkitekto doktorea da eta urte horretatik Proiektu Arkitektonikoen irakasgaiko irakasle laguna da bertan. Doktore-tesian gari-siloen irudi arkitektonikoa aztertu zuen. IDOM ingeniariaren atal arkitektonikoko bazkidea da eta haren proiektu esanguratsuenen artean ditugu Athletic Futbol Cluben San Mames Barria futbol-estadioa, Bilbao Exhibition Centre (BEC), Ondarretako Polizi Komisaldegia eta Bilbao Arena kiroldegia.

Lana: San Mames Barria futbol-estadioa.
 Sustatzailea: San Mamés Barria SL.
 Egileak: César Azcárate.
 Data: Eraikitze-lanetan.



Luis Mari Uriarte Aldaiturriaga (LM Uriarte Arkitektura)

Arkitekto arabarrak 1980. urtean amaitu zituen Arkitekturako ikasketak Madrilgo Arkitektura Goi Eskola Teknikoan, eta orduz geroztik tentu handiz aukeratu ditu egin beharreko lanak, kalitate handiko curriculum osatuz Iruñeko Arkitektura Eskolan irakasle-lanak hartzen zituen bitartean. Bilboko Arte Ederren Museoaren handitzea da haren lanik ezagunenetako bat, eta gaur egun berak proiektaturiko Getxo Antzokiaren lanak egiten ari dira.



Lana: Erregimen Orokorreko eta Bereziko 69 eta 34 Etxebizitza,
Areta, Laudio.

Sustatzailea: Visesa.

Egileak: Luis María Uriarte.

Kolaboratzaileak: Goyo Zamora, Tomás Pineño.

Data: 2003.





Iñaki Arrieta Mardaras (Estudio K)

Iñaki Arrieta Mardarasek, getxotar algotarrak, 1974. urtean Bartzelonako Arkitektura Goi Eskola Teknikoan Arkitekturako ikasketak amaitu zituen. Gaur egun Estudio.k-ko koordinatzaile orokorra da, hirigintza, arkitektura eta ingeniariatza jorratzen dituen kooperatiba. Haren lan arkitektonikoen artean daude Bilbo Zaharreko Laguna, Cantalojas eta Gimnasio kaleetan gauzatutako babes ofizialeko 40 etxebizitza, bai eta EHUko Leioako Campuseko berrikuntza-lanak bai. Jaso dituen sarien artean, irudiotan agertzen den lana dago.



Lana: Urdaibai biosfera-erreserbaren erabilerako eta kudeaketarako egitamu gidaria.

Sustatzailea: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

Egileak: Iñaki Arrieta, arkitektoa eta Estudio.k-ko talde egilearen koordinatzailea.

Talde egilearen kanpoko kolaboratzaileak: Eduardo Gonzalez Perez, biologoa; Juan Landa Mendibil, abokatua.

Data: 1989.

